


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko irailaren 19a

Mahatsaren ordua

■ Irailarekin batera, mahats bilketaren garaia iritsi da Nafarroara, beste hainbat lekutara bezala. Aurtengoa, dena den, ez da ohiko mendema izanen, azken hilabeteetako euriak eragin handia izan baitu gure herrialdeko mahatsondoetan. Euriaren ondorioz, hain zuzen, gaixotasunek erruz jo dituzte Nafarroako mahastiak. Hori dela eta, erabat kaltetuta gelditu da bildu beharreko mahatsaren zati bat. Aipatzekoa da, halaber, mahastizain guztiak ez direla batera hasi zelaietako fruituak jasotzen. Iraileko lehen egunetan gutxi ziren mahastietan lanean ari zirenak. Hala ere, astelehenetik aurrera orokorra izango da, ziurrenik, mahats bilketa, azken egunetako eguraldi bero eta idorrari esker. Pitillasko Paco Garde goiztiarra izan da, eta joan den asteartean hasi zen mahatsa biltzen, koinatarekin eta kontratatutako hamar langilerekin batera. Iaz baino mahats gehiago biltzea espero du, baina ziur da prezioak behera egingen duela, eta ez dago batere kontent. ■



Hainbat lekutan hasi badira ere, astelehenetik aurrera orokortuko da mahats bilketa.

LUIS AZANZA

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Astearte gauean ilargi-eklipsearen lekuko izan nintzen eta ez nintzen horretaz ohartu. Uste nuen hodei beltzak zeudela ilargiaren parean. Zerbait bitxi sumatuko zen, hala ere, ilargiari begira geratu bainintzen eta ez da izaten hori nire eguneroko ohitura.

Ilargipean bizitzea gustuko dut, hori bai, eta ez dut ukatuko ilargiak guregan eragina duenik. Goibel, kope-tilun nengoen ilargiari begira jarri nintzelarik, biziki kezkatu, melankonia-tsu. Nire atzetik festaren doinua aditzen zen, eta hala ere, lasaitasunaren bila abiatu nintzen herriaren ingurue-

Ilargia bezala

tara. Ilargiaren modura ere nire argitasuna ia erabat estalirik zegoen une hartan.

Berak kutsatuko zidan bere tristura edota nik adieraziko nion nire fidelitasuna. Batek daki nor nori ari zen.

Horretan nengoela topatu ninduen lehenbiziko lagunak eta hartan hautsi zen nire zorigaitza. Laster hasi zen zeru-goia itxuraz hobetzen. Ni lagun gehiagoren artean nengoen. Gertu zeuden, gainera, inoiz baino atsegina-go. Adiskidantzak uxatu zituen nire kezka larriak, ilargiak belztasunaz askatzen zen bitartean. Zezen suzkoa-

ren aitzineko korrikaldiak zeuden da-goenekoz, karrika nagusian. Nik mintzatzeko ahalmena berreskuratua neukan, eta ilargi betea edertasunez ageri zen.

Lurra noizbehinka artean jartzen dituen trabak denbora motz batekoak dira zorionez eta ilargia eguzkiari esker ikusgarria zen berriz. Gure bidean ere harri kozkorak badira batzuetan aurrera segitzeko oztopo direnak. Beharrik eguzki-indarra eskuetan dutela, bertan adiskideak daudela. Haiei heldu. Jausi egin eta harriak atzean utzirik, irriparra itzultzen da ezpainetara. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Bera: Suhiltzaileen parkean rock jaialdia izanen da bihar, gaueko 22:00etatik aurrera. Talde hauek parte hartuko dute: P.L.L.T., Vomit eta Koma. Berako Gazte Asanbladak antolatu du eta sarrekerak 500 pezeta balioko du.

Lizarra: Lizarralde pilotalekuan Celtas Cortos taldeak joko du gaur, gaueko 22:00etan. Sarrekerak 2.000 pezeta balio du.

Iruñea: Yerbabuena taldearen jazz eta boleroak entzuteko aukera izanen da bihar, San Jose plazan eguerdian.

ERAKUSKETAK

Burlata: Alejandro Zubiria Delgadoen margo erakusketa inauguratuko dute asteartean, arratsaldeko 20:00etan. Hilaren 29ra bitartean egonen da ikusgai, herriko Kultur eta Jaien Udal Patronatuaren eskutik.

Iruñea: Marianon Arsuagaren margoak Gotorlekuko Mistoan Pabilioian daude ikusgai, hilaren 26ra bitartean. Lanegunetan 18:00etatik 21:00ak arte dago zabalik erakusketa, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00ak arte.

Barañain: Herriko Eskulan Taillerreko lanak ikusgai dira Kultur Etxean, hilaren 26ra bitartean. Asteartetik ostegunera dago zabalik, 19:00etatik 20:30ak arte.

Zizur Nagusia: Pilar Barrosoren oleoak zintzilik dira Kultur Etxean, hilaren 30era bitartean.

ANTZERKIA

Iruñea: Amadis de Gaula taldeak *Tarta de manzana* lana estreinatuko du gaur Gaiarre antzokian, arratsaldeko 20:00etan.

Iruñea: Markeliñe taldeak *Armagedon* obra eskainiko du gaur, gaueko 21:00etatik aurrera, Burgoen plazan.

IKASTAROAK

Burlata: Nafarroako Euli Arrantzaleen Elkarteak bi ikastaro antolatu ditu, urria eta martxo bitartean egiteko. Lehenengoan partehartzaileek euli artifizialak egiten ikasteko aukera izanen dute. Asteartetan izanen da, arratsaldeko 20:00etan, elkarrearen egoitzan. Bigarren ikastaroa iniziatuentzat izanen da, eta izokinak harrapatzeko euliak egiten eta kanaberak montatzen ikasiko dute. Halaber, euli arrantzari buruzko bideoak ikusteko aukera izanen dute. Bigarren ikastaro hori ostiraletan izanen da, arratsaldeko 20:00etan. Nafarroako Euli Arrantzaleen Elkartearen helbidea hau da: Batondoa kaleko 1 zenbakia, C etxabea, Burlata (14 80 54 telefonoa).

BESTELAKOAK

Bera: Bortzirietako Peru 97 espedizio kideek diapositiba emanaldia egingen dute gaur Kultur Etxean, arratsaldeko 20:30etan.

nafar kronika

Pello Goñi

Patinak

Barañaingo lakuko patinatzaileek inbidia ematen didate. Betidanik izan baitut amets bota-patin horiek izatea, baina gaztetan erosten ez zizkidatela-koz eta gero patinatzekeko urteak joan zitzaizkidalakoz, kontua da burdinezko irristagailu zakar haietan gelditu nintzela. Orain gazte horiek ikusten ditut, irristaka, gurpilak bata bestearen atzetik lerro bakarrean dituzten patin dotore horiekin eta ezin dut inbidia saihestu. Skate-pistan aritzen dira goiti eta beheiti, airean jauzi harrigarriak egiten dituztela, jirabira berriak elkarri erakusten, belauetako eta ukondoko ikusgarriak jarrita, arrastaka eramaten dituzten gaitza handixko horiekin. Handik pasatzen naizenean, haiei begira gelditzen naiz luzaz, ene gogoetei emana. Ez galdetu zergatik, baina gustatzen zait beren

itxura baldar hori, batere orijinala ez izan arren, gaztetxoendako moda anitz bezala New Yorkeko karriketatik ekarria baita azken finean. Lakuko patinatzaileek bizitza euren aitzinetik pasatzen ikusten dute edade horrek duen berezko lotsa-gabekeriak, goiti eta beheiti, irristaka eta irristaka alde batera eta bestera, zap, zap, zap... telebistako *zapping* ero batean bezalatsu. Aritze monotono hori bizitzaren metafora izan daiteke, nonbait. Izan ere, horrela ibiltzen baikara maiz mundu honetan, batera eta bestera, norabidea gehiegi pentsatu gabe, egoerak eramanak, oinetan irudizko patinak izango bagenu bezala, balantzaka askotan, gora eta behera, egunero gauza berdinak egiten eta esaten eta pentsatzen, egunero bete gabeko promesa berberak errepikatzen... Barañaingo lakuko patinatzaileei inbidia diet eta ez galdetu zergatik.



Barañaingo lakuan ez ezik, Nafarroako bazter askotan patinetan ibiltzeko afizio handia dago.

asteko pertsonaiak



Iñaki Camino Lertxundi
Ikertzailea

■ Aezkoara joan zen 19 urterekin, 1982an. Orduz gero, aezkera ikertzen eman du kasik bizi erdia, eta asteartean 15 urte horiek eman duten fruitua liburu moduan karrikaratu du, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa* da lanaren izenburua, eta Euskal Herriko Unibertsitatean *cum laude* kalifikazioa jaso zuen tesian dago oinarriturik. Caminoren esanetan, lanaren helburua orainsu arte ezezaguna izan den aezkeraren inguruko ikuspegi berria ematea da, izan ere orain arteko usteekin hautsi nahi baitu. Ikerketaren ondorioz, aezkera goi-nafarrera da, eta ez behe-nafarrera, Luis Lucien Bonapartek joan den mendean esan zuen bezala.



Jose Maria Jimeno Jurio
Historialaria

■ Jose Maria Jimeno Jurio historialari nafarraren liburu berri bat argitara eman du Pamielak: *Al airico de la tierra. Tipos de la tierra*. Liburu horretan, 1973-1975 bitartean Jimeno Juriok argitaratutako berrehundik gora artikulua jaso ditu argitaletxe nafarrak. Iruñeko Udal Aurrezki Kutxak banaka argitaratutako artikulua dira orain bilduta ageri direnak. Horietan, Nafarroan herriz herri egindako ibilaldien berri ematen du egileak, bai eta ibilaldi horietan ezagututako jendearen testigantzak ere. Herrietako ohitura, bizimodu eta ofizio zaharren berri jaso zuen Jimeno Juriok artikulua horietan, herri horietako adinduen ahotik.

ahaztu gabe!



MENDIKO ASTEA

Iruñea: Elkarteko mendi taldearen 40. urteurrena ospatzeko, Mendiko Astea antolatu du Anaitasunak. Datorren astelehenean hasi eta igandean amaituko da. Astelehenean, *Argazkiak eta mendiko gaiak* erakusketa zabalduko dute, arratsaldeko 19:00etan; eta 20:00etan *Anaitasuna goieran* izeneko proiektzioa eskainiko dute taldeko veteranoek. Biharamunean, mendia eta ekologiari buruzko mahai-ingurua egingen dute; eta asteazkenean, berriz, *Hamar urte Pirinioetako ibilaldian* proiektzioa ikusi ahal izanen da. Belen Eguzkizak eta Poto Gorrotxategik zuzenduko dute. Pirinioei buruzko pelikula ikusi ahal izanen da ostegunean ere, *Horizons partagés, la Grande Traversée des Pyrénées* izeneko, hain zuzen ere. Louis Audobert izanen da egun horretan Anaitasuna elkarrean. Ostiraletan Josema Casimiro eta Mari Abrego hurbilduko dira elkartera. Mendi irteerak ere egingen dituzte Mendiko Astea: larunbatean Okolin mendatera, eta igandean Artxueta mendatera. Eguerdian meza egingen dute Aralarko San Migelen. Lekunberri bazkaria egingen dute gero.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostira-lera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur-errentzako saioa 12.30etan.

Bera

Hirugarren Dantzari Ttiki Eguna

Bestalde, helduen euskalduntzeko kanpaina bana hasi dute IKAk eta Erausianek

Hirugarren urtez jarraian, Berako Dantzari Ttiki Eguna ospatuko da igandean. Gure Txokoa elkarteko dantza taldeak antolatuta, sei talde ariko dira egun osoan Berako kaleetan. Goizean ongi etorria egingen zaie lamoteneako atarian talde guztiei, eta, ondoren, herriko auzo guztietara banatuko dira.

Jon Abril / Bera



Gure Txokoa dantza taldearentzat egun berezia izango da igandea.

JOSU GOIA

EUSKAL HERRIKO bazter guztietatik helduko dira dantzariak Berara. Lapurditik Sarako dantzariak izanen dira, Gipuzkoatik Behobia eta Mendarokoak, Bizkaitik Gernikakoak, Laudiotik etorriko dira Arabako ordezkariak, eta herritarrak izanen dira nafar bakarrak. Egokituko zaizkien auzoetan aritu ondotik, eta auzo horietan hamaiketako hartu ostean, Altzateko kalera bilduko dira guztiak. Eguerdiko ordubata inguruan agurra eta aureskua dantzatuko dute sei taldeek Alzate kale osoan barrena.

Dantzari ttikiak Berako dantzarien etxeetara bilduko dira bazkaltzera, eta haien arduradunek eta musikariek Gure Txokoa elkartean bazkalduko dute. Ondotik, arratsaldeko 17:00etan, lamotenean elkartuko dira berriz dantzari guztiak, Eztegarra pilotalekuraino kalejiran joateko, eta han dantza emanaldia eskaintzeko. Talde guztiek euren dantzak egin ondotik, ekitaldia berenduarrekin bukatuko da.

Euskararen aldeko

kanpainak • Gure Txokoa elkar-
tea ez da Beran eta Bortziritan
lanean ari den bakarra, udako

hilabeteak pasatuta beste hainbat talde ere abian jarri da. Bortziritako IKAk, adibidez, urrian hasiko den ikasturterako matrikulazio kanpaina hasi du. *Nahi dugu hitz eta jolas* lelopean, antzina bezala, urrats guztiak eta EGArako prestakuntza eskainiko du euskaltegiak. Ikasleek aukeratu ahal izanen dituzte ordutegiak, eta eskolak Arantzán, Igantzín, Etxalarren, Beran eta Lesakan emanen dira, betiere, taldeak osatuz gero. IKAKo euskaltegian — Bortziritako bakarra — klaseak goizean, eguerdian, arratsaldean eta

arratsean ematen dira. Halaber, EGA azterketa prestatu nahi dutenek astean zehar nahiz larunbatetan lau ordutako ikastaroa eskaintzen du euskaltegiak.

IKArekin batera, Erausianek ere kanpaina hasi du Bortziritako gazteak euskaltegiaren matrikulatzeko. Euskaraz ez dakitenei edo alfabetatu gabeak direnei ezkontza gonbidapen bat bidali diete Erausian Bortziritako Gazteen Euskara Taldekoek, «zu eta euskararen arteko ezkontzara gonbidatuz». *Ezkondu zaitetz euskararekin* kanpaina bortz

herrietan hedatu dute, eta hau izanen da Erausianek Bortziriak osorako antolatu duen lehenbiziko kanpaina.

Matrikulatzeko epea urriaren 3ra arte dago zabalik, eta Berako zein Lesakako egoitzetan egin daiteke. Lesakan, Matxinbeltzeneako lehen solairuan egun osoan egin daiteke matrikula, edo telefonoz, 63 77 96 zenbakira deituz. Beran, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara herriko etxeko lehenbiziko pisuan duten bulegoan, edo 63 11 05 telefonora deituz egin daiteke, ordutegi berean. X

Orbaitzeta

Aezkoako Eguna ospatzen ari dira bailarako biztanleak joan den asteazkenaz geroztik

■ *Igandekoak izanen dira ekitaldi nagusiak, eta, besteak beste, herri bazkaria egingen dute urtero legez*

Erredakzioa / Iruñea

AZKOAKO EGUNA ospatzen ari dira bailarako biztanleak joan den asteazkenaz geroztik. Aurtengo, gainera, ekitaldi berezia da, 20. urteurrena betetzen baitu jaiegun honek. Aurtengo egitarauari Aitzpea Azkorbebeitiak eman zion hasiera Joseba Sarriandiarri buruzko hitzaldiarekin, asteazkenean; eta atzo, berriz, Aezkoako mugei buruzkoa eskaini zuen Aitzpea Leizaolak.

Gaur bertso afaria egingen dute Orbaitzetako Olako Urkulu tabernan, gaueko 22:00etan. Bihar, berriz, arratsaldeko 18:30ean hasiko dira ekitaldiak.

Ordu horretan, hain zuzen, pilota partidua izanen dira. Aezkoarrek inguruko beste herritarren aurka ariko dira. Ondoren Goia taldeak kontzertua eskainiko du, gauerditik aurrera; eta goizaldeko 01:00etan, dantzaldia izanen da Trikimailu taldearekin.

Aezkoako Eguneko ekitaldiak asteazkenean hasi baziren ere, igandekoa izanen da jaiegunik beteena, egun osoan izanen baita zer ikusi eta zer egin. Goizeko 10:00etan, hasteko, dianak joko dituzte Aurizberriko txistulari eta gaiteroek. Ordu erdi geroago Iratiko eta Pirinioetako gazta lehiaketa hasiko da; eta 11:00etan, berriz, meza egingen dute. Bailara-

ko abesbatzak parte hartuko du.

Meza bukatuta, 11:30ean, kalejira egingen dute Orbaitzetan bildutako guztiek, Urtzi taldearen laguntzaz. Ondoren, eguerdian, abesbatzak emanaldia eskainiko du, eta eguerdiko 13:00ak aldera, Orbaitzetako zantzar gazteak aterako dira kalera. Ordu berean, gainera, herri kirolen saioa egingen dute. Agoitz eta Aezkoako kirolariak izanen dira lehian. Goizean, halaber, bailarako, inguruko herrietako eta Euskal Herri osoko artisauen lana ikusi ahal izanen da herrian. Horrekin batera, Orbaitzetari buruzko erakusketa etnografikoa antolatu dute Aezkoako biztanleek.

Urtero legez, herri bazkaria ere izanen da aurtengo Aezkoako Egunean, arratsaldeko 14:30ean. Bazkalostean gazta lehiaketako sariak banatuko dituzte, eta, gainera, Aezkoako aretxi bat zozketatuko dute. Aurizberriko txarangak, Orbaitzetako trikitilariak eta Urtzi taldeak alaituko dute giroa. Arratsaldeko 17:30ean, bestalde, haurrentzako antzerkia izanen da, eta 18:30ean Oberena dantza taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du. Azkenik, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, Izotz taldearekin dantzaldia izanen da, eta horrela emango zaio amaiera Aezkoako Egunari. X

Aranguren

Asteburuan bestak: kantu eta dantzak izanen dira nagusi

■ *Larunbatean*

karrikadantza luzea

Enrike Etxarte / Iruñea

IRAUNGI hurren dagoen uda hau aitzinekoen ildoari jarraiki zaio, hots, herriko festetan gero eta jende gutxiago mugitzen da. Gauza jakina zen igandeetan, ilunabarretik goiti, plazak hustu egiten zirela duela zenbait urtetik honat. Garai batean, nekazaritzari lotutako gizartean igandea zen festa egun nagusia, baina bizimolde horrek aspaldi utzi dio tokia bertze bati. Iduri du, gainera, uda partean jaietan herriz herri ibiltzeko ohitura izan duen azken belaunaldiari indarrak agortzen hasi zaizkiola eta ez dute segidarik.

Joera hori herrialdeko toki guztietan gertatzen ari da, baita Aranguren bezalako herri txiki batean ere. Dena den, giroari eusteko aldaketaren bat sartu egitarauan eta kitto. Aranguren herrixka da, Iruñea ondoan dagoena, ez da jende aunitz bizi eta etxekoendako festak izaten dira. Egunik onena ortzirelekoa izaten da eta gero larunbata, igandean akabo, festak akitzen baitira. Herriko jendea indarrez ibiliz gero, aski da alimaleko giroa sortzeko eta herriko zoko-moko guztiak alaitzeko. Festak gaur eguerdiko 12etan hasiko dira txupinazoaren bidez, eta gero zola muxinduxea duen elizdorrera igo eta ezkilak ederki harrotuko dituzte. Dirlin-dalan hotsa arautzek ere belarri zuloetan sartuta dagoela, herri bazkariari hasmenta emanen zaio. Hogeita hamar lagun baino gehiago ez, baina indarrak bete-betea direnez, kantuen oihartzuna Iruñeraino iristen da, akordeoilarien soinuekin batera. Afaria ere ez da faltako, ezta sorgin afaria ere goizeko 5etan. Azken kantutak argiak gaua urratzearekin batera isilduko dira.

Larunbatean ere egun polita izaten da, txintxurrek nolahalako nekea sumatzen badute ere. Etxez etxeko karrikadantza egiten da, akordeoilariak lagunduta. Bertze zenbait lekutan Eguberrietan edota ihauterietan egingen dena, Arangurenen jaietan izaten da. Etxe bakoitzean puskak eta edariak mahai gainean paratu, sabela alegaratu, pare bat kantu eta aitzinera, hurrengo etxearen bila. Luzexka izaten da, zazpi-zortzi ordu irauten duen bidajea baita.

Azkenik igandea allegatuko zaie. Batzuk ez dira gauza izanen mihia mugitzeko ere. Ikusmena ariko da lanean, betazalak jaisten ez badira, behintzat: dantzariak, mus txapelketa, soka-tira, gehienez ere hondarreko mejikana dantzatu eta fini, biharamun goizean lan eguna delakoz. X

Mahats bilketa
Nafarroako zelaietan

Bilketa garaia

Zenbait lekutan mahatsa biltzen hasi badira ere, astelehenean orokortuko da mendema, ziurrenik

Irailak, urtero legez, mahats bilketaren garaia ekarri du Nafarroako mahastietara. Azken hilabeteetako eguraldi txarrak, dena den, ezberdin egin du aurtengo mendema, eta mahastizain guztiak ez dira batera hasi landetako fruituak biltzen. Zenbait lekutan lanean hasi badira ere, astelehenetik aurrera orokortuko da bilketa Nafarroan, ziurrenik. Mahatsaren ordua da.

Eduarne Elizondo / Pitillas

NEKAZARIAK hasi dira, poliki-poliki, beren zelaietako mahatsa biltzen, urtero legez irailak mendema ekarri baitu Nafarroara. Aurtengo bilketa, dena den, irregularra izanen da, azken hilabeteetako eguraldi txarraren ondorioz mahasti batzuetan bestetan baino lehenago heldu baita mahatsa. Baina hori ez da euriak aurtengo mahats bilketan eragin duen ondorio bakarra: izurriteek ere erruz jo dituzte Nafarroako mahatsondoak. Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Estazioko (EVENA) lehen datuen arabera, hain zuzen, aurtén biltzea espero duten mahatsaren % 5 edo 10 kaltetuta egon daiteke.

Eta, aurreikuspenek diotenez, 105 milioi kilo mahats bilduko da Nafarroako aurtengo bilketan; horietako 81 inguru Nafarroa Jatorri Izenenean sartuta dagoen eremuan, eta gainontzekoak, Errioxa Jatorri Izendekoan, degoenean. Teknikoek «ontzat» eman dute aurtengo mendema, nahiz eta iazkoan bildutako mahats kopurua % 15 handiagoa izan. Iaz, hain zuzen, 124 milioi kilo bildu zituzten, eta denek «historikotzat» jo zuten emaitza hori. Mahatsaren kalitateari dagokionez, aurtego uztaren kalifikazioa beratu elaboratu arte jakingo ez bada ere, «ez da ezin hobea izanen», Santi Bujanda Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasuneko teknikoak aipatu digunez.

Abuztuaren bukaerako eta gaur egungo egoera, dena den, ez da erabat berdina, eta azken egunetako eguraldi eguzkitsua eta idorrek lagundu du aurretik euriak egindako kaltea arintzen. Horregatik, hasieran espero zena baino hobea izanen da, seguraski, mendema. Mahasti guztien egoera, gainera, ez da berdina, eta batzuetan bestetan baino larriagoa izan da eguraldiak egindako kaltea. Pitillasko Paco Garde mahastizainak, adibidez, biltzea espero zuen mahatsaren % 15 galduko du, ziurrenik, izurriteen ondorioz, *Mildiu* eta *Brotytis* izeneko eritasunen aurkako borroka galdu baitu. «Batzuek



40.000 kilo mahats biltzea espero du Paco Garde mahastizainak.
LUIS AZANZA


zortzi edo hamar tratamendu eman dituzte eta izurriteari ihes egitea lortu dute, baina nik ez dut lortu, ez dut azertatu», azaltzen zuen, burumakur.

Paco Garde asteartean hasi zen mahatsa biltzen, kontratatutako hamar langile eta Luis Alvarez koinatarekin batera. Goizeko zortzietan hasi ziren lanean, eta lanean jarraitzen zuten arratsaldeko ordu bata inguruan, haiengana hurbildu ginenean. Paco Gardek bi mahasti ditu, basoko deitzen den motakoak —denetara sei hektarea eta erdi— Pitillas herri inguruan, eta horietako bateko mahatsondoan artean makurtuta aurkitu genituen denak. Luis Alvarez izan ezik. Langileek betetako pertzak traktorearen erremolkean hustutzen ari zen. Lepo bete zutenean, semeak eraman zuen Pitillasko kooperatibara. «8.000 kilo inguru izanen ditugu hor», esan zigun Luis Alvarezek semeak traktorea eraman aurretik. «33 erregunarri ditugu. Hamaika moztu ditugu ja, eta bi bildu», gaineratu zuen.

Paco Garderen mahastietan, hain zuzen, egun gutxirako lana izanen dute kontratatutako lagunek. «Lau edo bost, gehienez ere», esan zuen Daniel Garciak, langile horietako batek. Langabezian dago eta mahats bilketak denbora batez, behintzat, aurrera egiteko aukera eskaintzen dio urtero. «Baina ez gehiegirako», esan zuen, kezkatuta, Zarrakazteluko gazteak. Baina langileak ez dira kexu agertzen diren bakarrak, nagusia bera ere burumakur agertu baitzitzaigun: «Tenpranillo motako mahatsa baino ezin

MAHASTIAK NAFARROAN

• Guztira: 18.249 hektarea (ematen dutenak eta ez dutenak barne)



J. APEZTEGIA

Mahats bilketa Nafarroako zelaietan

Paco Garde: «Hemen kalitatea guk dugu, basoko mahastiak ditugunok; desagertzen denean, akabo kalitatea»

dugu bildu orain, hori baino ez baitigute eskatu. Goizeko zortzietan etorri gara, bazkaltzera joanen gara orain, eta arratsalderako dena bilduta izanen dugu, eta denak etxera».

Aurten prezioak behera • Paco Gardek bizitza osoa darama familiako mahastiak zaintzen. Gurasoengandik jaso zituen, baina oraindik ez daki bere ondorengoek gauza bera eginen duten. Bitartean, mahatsondoei eskaintzen die bere arreta eta lan guztia, Paco Gardek argi azaltzen duenez «ongi zaindu behar baitira. Cintruenigoko lagun batek esaten zuen bezala, hogeitaz igaro behar da mahatsondo bakoitzaren ondotik».

Garai batean garnatza motako mahatsa baino ez zuen Gardek mahastietan. Gaur egun, berriz, garnatza, tenpranillo eta viura. Mahats barietateen kontuarekin, dena den, ez dago batere kontent Pitillasko nekazaria, ezta mahatsaren prezioarekin eta kalitatearekin ere. Prezioari dagokionez, aurten behera eginen duela ziur da, «inork ez baitu mahatsa erosi nahi. Iaz 35.000 kilo bildu nituen, eta aurten 40.000 biltzea espero dut, baina ziur naiz aurten biltzekoarekin iazkoarekin baino diru gutxiago irabaziko dudala», aipatzen du.

Mahatsaren kalitateari buruz ere badu zer esanik Paco Gardek, haren ustez kalitateari baino produktioari ematen baitzaio gaur egun lehentasuna: «Hemen, kalitatea guk dugu, basoko mahastiak ditugunok, hori baita onena. Basoko mahastiak 500-600 kilo mahats produzitzen ditu erregunarrari bakoitzeko; parrakoak, berriz, 2.000 kilo. Parrakoa, beraz, inoiz ez da basokoa bezain ona izanen. Basoko mahastiak desagertzen direnean, akabo kalitatea, txar-txarra izanen da».

Basoko mahastiak parrakoak baino ugariagoak dira gaur egun Nafarroan, baina, Paco Garderen ustez, produktioari lehentasuna ematen jarraituz gero kopuruak gora egin dezake. «Basoko mahatsondoak kendu dituzte, mahatsondo onak kendu dituzte barietate txarrak jartzeko. 2.000 kilo produzitzen dute erregunarrari bakoitzeko, baina zer eginen dugu mahats kilo horiekin guztiekin gero ezin bada saldu?», galdetzen du Pitillasko mahastizainak.

Bestelako iritzia du Santi Bujanda UAGNko teknikariak, haren ustez gaur egun zorrotzagoak baitira upelategietako jabeak: «Ardoa egiteko prezua gero eta gehiago zaintzen da, eta gehiago eskatzen diete mahastizainei».

«Gogorra da, baina merezi du» • Luis Alvarez orain dela 47 urte allegatu zen Pitillasera, Traibue-



Asteartean, goizeko zortzietan hasi ziren mahatsa biltzen Paco Garderen langileak.

LUIS AZANZA



Lan gogorra da mahatsa biltzea, basoko mahastietan eskuz egin behar baita lan guztia.

LUIS AZANZA

nas ondoko herritik. Paco Garderen arrebarekin ezkondu eta harekin hasi zen lanean, mahastiak zaintzen. «Paco mahastiak zituen, eta nik traktoreak; beraz, elkarrekin hasi ginen lanean», dio. Ordura arte, gaztetan baino ez zen ibili mahatsondoen artean Luis Alvarez, baina ez lanean, «mahatsa jaten baizik». Orain, koinataren mahastiak zaindu ez ezik, bereak ere baditu. Parrako hamar erregunarriko mahastia dauka herrian.

Alvarezen iduriko, dena den, basoko mahastiak dira onenak,

«eta ni, basoko mahastiei esker bizi izan nahiz urte hauetan guztietan». 47 urtetan, noski, garai onak eta txarrak ezagutu ditu Traibuenaskoak, baina onak ditu batez ere gogoan. Txarren artean, orain dela bi urtekoa aipatu digu Alvarezek, mahastia izoztu zitzaionekoa. «Eta zer eginen dugu? gerrikoa estutu eta aurrera».

Paco Garderi bezala, kezka sortu dio Luis Alvarez ere prezioaren beherakadak. «Ziur naiz prezioak behera eginen duela, mahats asko baitago eta ezin

baita saldu. Guri, lehen, Bartzelonatik etortzen zitzaigun Segura Viudas uzta egin aurretik erostera. Kalitatea bilatzen zuten. Baina, orain, barietateen kontuarekin...», azaltzen du nekazariak.

Pitillasko herritarrek, dena den, aspalditik bizi dira herri inguruan jarritako mahastiei esker. Edo bizi ziren, hobeki esanda. «Lehen, herri guztiak egiten zuen lan mahastietan, gaur egun, berriz, gutxi gelditzen gara. Eta gazteak hamar ere ez dira».

Pitillasko eta Nafarroako osoko mahastiek, dena den, urtero ematen diote lana langabezian diren bertako eta kanpoko jende askori. Paco Gardek, esan bezala, hamar gazte kontratatu ditu, bederatzi gizon eta emakume bat. Mari Carmen du izena andreak, eta ez da mahats biltzetan lan egiten duen lehen urtea. «Lan gogorra da, ordu asko ematen dugulako, eta den-

Makinaz eta eskuz

NAFARROAKO mahasti gehienetan eskuz egiten da bilketa gaur egun. Basoko izeneko mahastiak dira, eta nahitaez bildu behar dira eskuz. Baina ez dira basokoak Nafarroan dauden mahasti bakarrak, gutxiengoa badira ere badira parrakoak ere. Besteak baino altuagoak dira, eta mahatsondo ilaren artean tarte zabalagoa uzten da, makinak sartu ahal izateko. Parrako mahastiak, hain zuzen, makinaz biltzen dira.

EVENAko datuen arabera, Nafarroako mahastien % 40 makinaz biltzen da, parrako mahatsondoak direlako. Mekanizazio prozesua pixkanaka gertatu da azken hamar urteetan, eta gaur egun, EVENAren arabera, mahatsa biltzeko hamasei makina daude Nafarroan. Horrek ez du erran nahi, hala ere, gehiago erabiltzen ez direnik, hainbat mahastizainek kanpotik ekartzen baitituzte makinak Nafarroara, beste elkarte autonomoetatik, bai eta Frantziatik ere. Denetara, 30ekoa izan daiteke gure herrialdean erabiltzen diren makinak kopurua. EVENAk azpimarratzen duenez, halaber, Nafarroako mahastizaintza puntakoa da mahastien mekanizazioari dagokionez.

Makinei esker, noski, denbora asko aurrezten dute mahastizainek bilketan. Egunean, hain zuzen ere, bost eta zazpi hektarea bitarteko eremuko mahatsa bil dezakete. Eskuz, berriz, hektarea bakoitzeko sei-zortzi lagun inguru behar dira. Makinek, halaber, ordu eta erdian egiten dute hektarea bat.

Diruari dagokionez, zortzi eta hemeretzi milioi pezeta bitartekoa izan daiteke mahatsa biltzeko makina baten prezioa. Traktore batek bultzatzen duen makina mahatsbiltzailea da merkeena, eta autoeragilea, berriz, garestiena. Badira, noski, makinak bilketa garaian alokatzen dituztenak. 40.000 pezeta inguru kostatzen da alokairua, azken urteetako datuen arabera. Aurten ere prezio horri eutsiko diotela dirudi.

bora guztian makurtuta, baina merezi du, ongi ordaindua dago gainera», adierazi digu Mari Carmenek.

Aurten Garderekin lanean ari diren gazte gehienak Zarrakaztelukoak dira, familia berekoak gehienak. Javier Jimenez da gazteena. Hamahiru urte ditu, eta pozik ari da lanean. «Oso osasuntsua da», erran zigun, mahastiko nagusia ondoan zuelako, agian.

Paco Garderen mahatsa bildu ondoren, beste norabait joanen dira Javier eta gainontzeko lagunak lan bila, bilketa garaia ahalik eta hobekien aprobetxatzeko asmoz. X

Luis Alvarez:

«Ziur naiz prezioak behera eginen duela: mahats asko dago eta ezin da saldu»

«Lehen Pitillasen herri osoak egiten zuen lan mahastietan, baina gaur egun gutxi gelditzen gara»

Xanti Begiristain

Beste bat arte!

■ Goiburuak dioen bezalaxe, irakurle sofitua, gaur agur txiki bat emateko behar nago.

Izan ere, seguru asko jakinaren gainean egonen zara heldu den ostiraletik aurrera Nafarkaria honek izan behar dituela hainbat aldaketa diseinuan, idazleen aldetik eta beste zenbait gauzatan. Beraz, heldu den astetik aurrera, txoko honetan bertan aurkituko duzu beste sinaduraren bat, edo beste marrazki / argazkiren bat, edota beste zerbait.

Ez dut zalantzarik egiten nire atzetik datorrena askoz hobea izan den dela, gehiago informatuko zaituela eta mila aldiz ere hobekiago pasaraziko dizula.

Mundu honetan denak, edo bai behintzat gehienak, dauka bere bukaera, eta nire txandari oraintxe iritsi zaio bere amaiera, hemen, Nafarkarian.

Dagoeneko, uste dut aritu naizela bi urte eta bi hilabetez gutxi gora-behera,

Dena esaten hasiz gero, adierazi behar nuke lan gogortxo izan dela, batez ere gaiak aukeratzeko unean eta gero, baita ideiak moldatzerakoan ere.

Hala eta guztiz ere, eta era berean, esan beharra daukat oso esperientzia polita izan dela niretzat, ez zaidala bat ere damu egin izana, eta alderantziz *harrosko* samar nago burutu izanaz. Erakargarria izan da.

Dena den, irakurle, zure meritua ere ez da hutsaren hurrengo izan, ni horrenbeste denboratan jasan izanagatik.

Hemendik aroberatu nahi dut emateko neure eskerrik zintzoena EGUNKARIA eta Nafarkariako profesionalei eskaini didaten aukera apart honengatik.

Halaber, hemendik bertatik bidaltzen dizkiet mila goraintzi eta esker on irakurle guztiei, bereziki nire berri izan duten presoiei, hala nola Fermin Sanchez, Mikel Zumarraga, Patxi Artze eta abar eta abar (barkatu aipatu ez zaituztedanak).

Klasiko bitxi • arrot klasiko

Joxemiel Bidador

Euskarara irauliriko Philoteen berri

■ I. Gure mendebaldeko kultura goseti eta zapaltzaile honetan gehien argitaratu izan den liburutako bat Philotea dugu batereko dudamudarik gabe. San Franzisko Saleskoa 1567.eko abuztuaren 21ean sortu zen izena eman zion Savoiako herrian. Pariseko jolasgundiaren ikastetxean ikasi ostean, Paduako unibertsitatean zuzerbideaniko doktoregoa eskuratu zuen 1592.ean, jarraian apaiz bizitzari erabat atxekitzeko. 1593.ean apaiztu ondoren, Saboiako kalbindarren artean saiatu zen horiek Eliza Katolikora erakartzeko. Ez zuen denbora luze iragan behar Genevako apezpikutegitza berari eskeini ziezaioten, eta zeregin hartan 22 urte eman ostean, Lyonen zendu zen 1622.eko abenduaren 28an. 1661.ean beatifikatu eta 1665.ean kanonizatu egin zuen Alejandro VII. aita santuak, eta 1877.ean Elizaren Dotore izendatu egin zuen Pio IX.ak. Philotearena dugu bere lanik ezagunena doke, hamaika hizkuntzetara itzulia izan dena. Lehendabiziko edizioa, *Introduction a la vie devote par Francois de Sales*, Lyongo Pierre Rigaudenean ageri zen 1609.ean. Euskal Herrian 55 urte soilik iguriki behar izan zen euskarazko lehendabiziko edizioa karrikaturik ikusi ahal izateko, Silvain Pouvreaux egin zuena alegia: *Philotea edo San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren Philotea eta Chapeletaren Andre Dana Mariaren ohoretan devocionerequin erraitico antea*, Silvain Pouvreaux apezpikua eman, Parisen, chez Claude Audinet, 1664. Bertan Saleskoarena 1661.ean beatifikatu Alejandro VII. aita santuari eskeintza eder bat jasotzen da, latin ezin hobez ondua, hortxe, Pouvreaux Euskal Herriaz zuen juktu on ona agerian utzi zigularik. Bestalde, lan honen baimen emaleak Baionako apezpikuaren idazkaria zen Sainte-Marie aita eta Frai Domingo Bidegarai genituen, azken hau frantxikotar baxenafartarra eta euskal lanen egilea, Nafarroako parlamentuak argitaratzeko dirulaguntza ez emateagatik agertu gabe geratu ziren lanen egilea alegia.

II. Philotea-ren bigarren euskaratzailea Joannes Haraneder lapurtarra dugu 1669. urte inguruan Donibane Lohitzunen sortua eta hantxe ere apez egondakoa. *Philotea edo devocioneraco bide erakustiallea San Frances Salescoac Genevaco aphaspicu eta princeac visitacioneco ordenaren fundatitailleac eguina*, Okzitaniako Tolosan agertu zen, Joannes-Frances Roberten etxean, 1749.ean. Geroantzean ere bigarren edizio bat azalduko zen Baionako Lampaigne baitan 1853.ean. Haranederrek bazekien jakin, berak baino lehenago beste norbaitek ber lana egin zuela: «Egia da bada, Diozesa huntako Jaun Apezpiku zen batekin Pariseko partetarik Baionarat etorri izan zen apez batek, eskaldunei zerbitzu errendatu nahiz, eskara ahal zakien bezala ikasirik, liburu hau eta bertze zenbait ere eskarat izuli zituela eta Parisen inprima arazi». Alabaina ezagun da Haranederrek ez zuela gehixegi maite Pouvreaux, ez berak egin lana, eta bere aldaeraren hitzurrean zatarki bazioskun: «Lehen itzulia izan da escuarera, ordea escualduna ez cen itzultiaile batec eguin ohi ceiaquen escuara gaitz eta arranyu gabeco batera».

III. Saleskoak ondu idazkiaren lehenbiziko euskal aldaera hegoaldean arrunt berantiarra izan zen, alta Jose Kruz Etxeberriak eginiko iraulketa 1821. urtera arte ez zen karrikaturako. Jose Kruz anai frantxikotarra Oiartzunen sortu zen 1773.ean eta 1801.era Zarauzko mixiolari apostoliken etxean bazegoen. Predikalari nekazina, Nafarroa eta Gipuzkoako hamaika herritan aritu zen hizlari. Esklaustrazio ostean Urrietara jo zuen eta bertan hil zen 1853.ean. Halarik ere, eta gure gaira ertsiki estekatu, *Devocionco vicitzaraco sarrera San Francisco Salesco aterra eta alta Frai Jose Cruz Echeverriac euscaraz ipini duena* Tolosako Frantzisko Lamakoarenean agertu zen 1821.ean, ordudunik aunitz edizio berri ber-agertu zirela: Tolosa, 1824-2; Tolosa, 1852-3; Tolosa, A. Gorosabel, 1863-4; Tolosa, 1868-5; Tolosa, F. Mugerza, 1885-6; Tolosa, 1901-8. Etxekide zuen Mateo Zabala bilbotarrak ez zuen Etxeberriaren liburuez iruzkinik egin, nahiz aipatu bai apatu egin zituela bere bibliografian, eta honek, nonbait, deitoratzen zituela esan nahiko luke, edo bederen, juktu txarra ziela: «Como varios autores de las siguientes obras aún viven, me abstengo de dar censura a sus obras, si no la merecen buenas». Etxeberriak, ordea, bere deskargua egin zuen Philotea-k hasmenta daraman ólra curtzailiari advertencia labur bat provechuz iracurri dezand izenburuko atarikoan: «Libru onetan curiosoac falta asco topatuco dituzte, ta aguirienac eusqueraren gauian izango dira. Topatuco dute bear bada Provinciac eusquerarequin batian Nafarroacoa, Vizcayacoa ta Arabacoa, cergatic guztietatic nabillela, ta beti corrica, escribitu det. Baña erreparoric andiena erderaz nastutaco itzacgatic eguingo dute. Baña zuc, cristau maitia, ez deazula onelaco aurqueriaz casoric eguin. Ez dezu libru onetan doctriua gaiztoric topatuco, animarentzat ogui gustosoa ta probechugarria izango dezu, ta aurrentzat eguiten den opilla, polita ta gaintzutua ez egonagatic, ez deazula iracurri gabe utci. Eusquera garbi garbian gucia ipini izan baniun, etcenduan guztia entendituco, ta ala ez nuen deseo nuena logratuco. Utcí bada aurqueriari, eta beguiratu sustanciari». ■



Patziku Perurenak beteko du aurrerantzean orain arte Xanti Begiristainek horren xuxen bete duen lekua.

JOXE LACALLE

ia-ia batere atsedetik gabe: izan ere, 1995eko uztailean hasi bainintzen, eta astero-astero bete behar izan dut nire konpromezua nola edo hala. Gaizki ez badut gogoratzen, ukan ditudan opor bakarrak Sanferminetako asteak izan dira, hortaz hogeita sei hilabetez bi aste baino ez.

Gaur arte ez dut konturik atera, baina orain pixka batez pentsatzen jarriz gero, konturatzen naiz izan daitezkeela ehun eta bosten bat artikulua idatzi ditudanak. Ez da makala e? Horrek ez du esan nahi onak direla, baina...

Egia esan, aitortu beharra dut inoiz ez dudala hainbeste idatzi, horren jarraian eta horrenbesteko iraupenarekin.

Berebat, eta oso bereziki gogoratu nahi dut gaur Bixente Hernandorena zena. Pertsona txikia gorputzez baina itzal handikoa izatez, eta irakurle fidela.

Dena den, irakurle estimatua, nahiz eta Nafarkariako orrialdeetatik desagertuko naizen, jakin behar duzu momentuz behinik behin ez dudala asmorik erretiratzeko, eta gauzak horrela, erraza izan den da noizean behin nire berri izatea egunkari honetan bertan, besteren batean, aldizkari batean edo bestean, edota beste nonbait.

Horrexegatik guztiarengatik ba, esaten dizuet guztiei beste bat arte, laster arte!

Bitartean bizi lasai, ongi eta zoriontsu! Beti arte! ■

Etorkizuneko bertsoak eztabaidatzen

Nafarroako bertsolari gazteak Etxalarren bilduko dira datorren asteburuan, ikasturtea prestatzeko



Arzallus kantari eta Legarreta, Silveira, Estitxu Fernandez, Elizagoien, Estanga, Estitxu Arozena eta Altzuart eserita, aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketan.

JOXE LACALLE

Jon Abril / Bera

BERTSOAK telebistara itzuliko diren udazkena izateaz gain, hiru aste barru Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusia hasiko da Tolosan. Horrek lan gehiago dakarren arren, eguneroko lanean jarraitu beharra dago, eta bertsolariak horretan ari dira, horrenbertez. Gazteek, baina, ikasturte berriari nola heldu eztabaidatuko dute gaur eta bihar Etxalarren. Azken aldiz, gisa horretako topaketan orain dela bi urte elkartu ziren Makean, Iparraldean. Orduz geroztik, iaz Seguran Euskal Herri guztiko bertsolariak egindako topaketan baino ez dute elkar ikusi, modu ofizialean.

Arratsaldeko 18:00etan elkartuko dira Etxalarko baserri batean. Eztabaidaren ildo nagusiak Nafarroan bertsolari gazteek duten papera eta egin beharreko lana izango dira. Saio gutti egiten da Nafarroan, eta gazteen arazo nagusia haletan parte hartzeko aukera eza izaten da. Txapelketatik kanpo lau zapabost saio baino ez dituzte egiten gazteek, eta anitzetan zein baldintzatan egiten diren ikustekoa da. Bertsolariaren eskola hoberena plazak egitea da, eta horretan burubelari ariko dira asteburu honean Etxalarren.

Antzina Xalto sariketa antolatu izan zen Nafarroako bertsolari gazteentzat. Aurten, ordea, ez da antolatu. Koordinazio eza izan da arrazo nagusia, baita data egokirik arautu ez dela ere. Horregatik, txapelketa hori berreskuratzea izanen da lanik

A buztuko oporren ostean, lanari edota ikasketeki ekiteko garaia etorri ohi da. Ikasleak eskoletara itzuli dira, eta, horrekin batera, normaltasuna bueltatu da eguneroko bizimodura. Baina hezkuntza homologatuaz gain, gainerako esparrutan ere martxan da jada ikasturte berria. Bertsolaritzak ere denboraldi berria du, eta bertso eskolak lanean hasiak dira. Prestatze lan horretan, gaur eta bihar bilduko dira Nafarroako bertsolari gazteak Etxalarren.

garrantzitsuenetarikoa bat, Nafarroan bertan, eta baita kanpoan ere, bertsolari gazteak promozionatzeko modu ona baita Xalto saria. Horrekin batera, txapelketa horrek zenbait saiotan parte hartzeko aukera eskaintzen zien bertsolari gazteei.

Nafarroako bertsolari gazteei buruz aritzerakoan, ez dira bakarrik Nafarroako Bertsolari Txapelketa Nagusian ateratzen diren izenak oroitu behar, bertso eskoletan dauden bertsolariak, eta eskolartekoetan parte hartzen dutenak andana bat baitira. Hori bera izan zen txapelketaren filosofia nagusia.

Eskolarteko txapelketa eta Nafarroako txapelketaren artean dagoen salto handi hori eragotzeko, hain zuzen, egin zen Xalto saria.

30 bat bertsolari bilduko dira asteburu honetako topaketara. Joxema Leitza, Nafarroako Ber-

tsozale Elkarteko koordinatzailearentzat, «Nafarroan gauden bertsolari gazteek elkar ezagutzea» da helburua, «eta elkarrekin egin ditzakegun ekintzak prestatzea, koordinazio bat bilatzea».

Bertsolari gazteentzat antolaturiko hamabi saio egin nahi dira, eta eztabaida hori mahairatuko da bihar goizean. «Egiteko modua, finantzatzekoa pentsatu behar da. Beharbada, lehen udako saioak egiten ziren bezala egin behar dira, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz», gaineratu du Leitzak, «baina zehaztasun guztiak Etxalarren ezarriko ditugu».

Horren aitzindari gisa, Bortziritako Bertso Eskolak bost saio antolatu ditu udazkenerako gazteek osatua. Helburua, gazteak plazan trebatzea da, eta jendea erakartzeko, apika, bertsolari ezagunak eta ezezagunak tartekatuko dituzte.

Joxema Leitza:

«Nafarroan gauden bertsolari gazteek elkar ezagutzea da helburua, eta elkarrekin egin ditzakegun ekintzak prestatzea, koordinazio bat bilatzea»

Euskal Herrikoak

Santutxun • Euskal Herriko bertsolari gazteek ere asteburu hau aukeratu dute euren topagunea egiteko. Hondarribian eta Seguran egin izan dituzte aurreko topaketak, eta aurten Santutxun bilduko dira. Nafarroan egun berean egitea, eta, beraz, Euskal Herriko ez joatea kasualitatearen emaitza baino ez da, harremanak oso onak baitira guztien artean. «Ezin izan dugu lehenago egin, aspaldi erabakia genuen, eta beranduago ere ezin genuen egin, dirulaguntzak eskatzeko epea orain amaitzen baitzaigu», argitu du Leitzak. «Pena da, zenbaitzuek Santutxura joateko asmoa baitzuten, baina lehentasunak ezarri behar dira, eta nafarrentzat, garrantzitsuagoa da gure lana ongi prestatzea».

Tartean-tartean, bilera eta eztabaida saioetatik landa, atsedeen uneak, otorduak eta arratsko giroa izanen dute, eta haletan, ez zaie bertsorik faltako. Eztabaidatzeaz gain, elkar ezagutzea funtsezkoa da lanari ekiteko. Eremu euskaldunean eta mistoan daude bertsolari gazte guztiak, baina anitzetan kilometro gutti batzuk distantzia handi bilakatzen dira. Nafarroako bertsolaritzaren etorkizuna direla aintzat hartuta, oinarri sendoak ezarri nahi dituzte. Orain arte egindako bidea sakontzea izanen da helburu nagusia. Entzuleari eskainiko zaizkion saioak nola atondu, antolatu eta bideratu eztabaidatuko da. Errimak, puntuak, koplak, bertsoak, hankaluzak eta hankamotzak, guztiak izanen dute lekua Etxalarren.

Zortziko Ttikian

KOPLAK alde batera utzita, bertsorik ttikienak neurri horretakoak izaten dira. Zazpi eta sei silaba tartekatzen dira zortzi lerrotan neurri horretan. Nafarroako bertsolaritzan ere, ttikienak biltzen dira Zortziko Ttikian, hori baita Nafarroako bertsolari gazteak biltzen dituen elkarrekin. Ia bost urte ditu, eta Nafarroako gazteak biltzeaz gain, Xalto saria antolatzeaz arduratu da orain arte.

Zortziko Ttikia elkarteko kideak dira, bertzeak bertze, Nafarroako txapelketetan hain ezagun egin diren Estitxu Arozena eta Xabier Silveira —biak Nafarroako txapelketak izandakoak—, Estitxu Fernandez, Oskar Estanga, Iñigo Olaetxea, Joxema Leitza, Nerea Bruño, Ekintza Landa, Xabier Legarreta, Mikel Altzuart... Baina Nafarroako bertsolaritzak baditu izen propio gehiago. Atzetik datozen bertsolariak, astero biltzen direnak Nafarroan barreiatuak dauden bertso eskoletan, horiek ere Etxalarren izanen dira, eurek ere zerikusi handia baitute biharko bertsolaritzan. Bortziritan —aurten herri guztietan gaztetxoak izanen dituen, eta Lesakan gainerakoak—, Goizuetakoan, Sakanakoan, Burlatakoan, Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan eta Iruñeko bi bertso eskoletan makina bat gazte ari da bertsoetan, etorkizuna lantzen. Izenak ezezagunak dira gehienentzat, baina garrantzi handikoak dira, eta horregatik egonen dira gaur eta bihar Etxalarren.

Horiei guztiei, ezagunei zein ezezagunei, bertso eskoletako ateak zabaldu behar zaizkie, plazetan entzun beharra zaie, euren burua trebatzeko, jende aurrean kantatzen ikasteko, ezagutzen joateko, bertsoa menperatzen ikasteko... eta guztia joko gisa, txapelketako giroa ezin baita mugatu bertsolaritzan, eta are guttiago gazteen bertsolaritza. Lan handia egiten ari da bertso eskoletan, eta horren berri eman behar da. Aitzinpauso nabarmenak eman dira bertsolaritzan Nafarroan, eremu erdaldunean edo bertsolaritzarenak berezkoak ez diren hasi da sartzeko, emeki-emeki, baina hasi da. Orain artekoa, ordea, ez da nahikoa. Plaza berriak deskubritu behar dira, gehiago hedatu behar da, garatzeko anitz dago, baita ikasteko ere, eta horretarako, plangintza egoki bat egin behar da. Hobe da Zortziko Ttikian hastea bederatzi puntukoan baino. Neurri ttikia menperatu behar da lehendabizi, handian kantatu ahal izateko. X

◆ **Rafa Maritxalar** ◆ Korrikalaria

«Txapelduna izateko zeurekoia izan behar duzu»


Joan den larunbatean Iruñeko Carlos III.a karrikan egin zuten Nafarroako Hiri Milia Fermin Cachok irabazi zuen, baina lehenengo postuetan izan zen nafarrik ere, laugarrena izan baitzen Rafa Maritxalar korrikalari lesakarra. Joan den larunbatekoa, gainera, ez da Maritxalarrek udan izan duen lorpen bakarra: uztailean lehen aldiz hartu zuen parte Espainiako Atletismo Txapelketa absolutuan, eta zortzigarrena izan zen, Estatuko onenen artean, 1.500 metroetako lasterketan.

Eduarne Elizondo / Iruñea

HILABETEOTAN ez du galtzeko denbora askorik Rafa Maritxalarrek, goizez eta arratsaldez ari baita lanean. Entrenatzeko, hala ere, beti aurkitzen du tarteren bat, atletismoa baitu gustuko. Hamasei urterekin hasi zen korrika egiten; 25 ditu orain, eta etorkizun polita aurrean.

■ **Joan den uztailean Espainiako Txapelketan parte hartu zenuen. Lehen aldiz, Estatuko atleta onenen artean lasterketa batean parte hartzeko aukera izan zenuen. Zer nolako esperientzia izan da, zer esan nahi du horrek zure karreran?**
Esperientzia ona izan da 1.500etako handiekin ibiltzea, Reyes Estevez, Biciosa eta horrelako jendearekin, ezberdina da. Gogor entrenatzen dira eta, zorionez edo zoritxarrez, maila hagit altua da. Zortzigarrena izan nintzen eta kontent nago, baina hobetu behar da.

■ **Gaztea zara oraindik, izanen duzu hobetzeko denbora.**
Gaztea naiz, baina, aldi berean, adina badut. Eta pazientzia behar da. Igual bi urteko epea



Rafa Maritxalar korrikalari lesakarra, Fuerte del Principe Gazteen Egoitzaren aurrean.

OSKAR MONTERO

ematen diozu zeure buruari, ez zaizu ongi ateratzen eta asperetzen zara. Gogorra da eta denbora anitz sartu behar da. Ez da futbola bezala, gainera, dirua irabazten duzula. Atletismoan irabazten dute dirua goiko laurrek, eta gainontzeko guztiok gaude guretzat gelditzen denaren zain, baina ez da anitz sobratzen.

■ **Zer asmo duzu etorkizunerako?**

Bi urteko epea ematea da nire asmoa, eta marka on bat egitea. 3.33 edo 3.35eko denbora lortzea gustatuko litzaidake. Bi urte horietan marka onik ez badut lortzen, seguraski utzi egingo dut. Korrika egiten segituko dut, baina ez hainbesteko presiorekin eta hainbeste entrenamendurekin. Kirol batean maila altuan aritzen zarenean, kirola bakarrik egiten duzu, ez duzu denborarik bertze mila gauza egiteko. Lor-

tzen badut ongi, eta ez bada ateratzen, utzi egingo dut, bertzela ez baitu konpentsatzen.

■ **Kirolariek anitzetan erraten dute atletismoa hagitx kirol gogorra dela. Zuk gauza asko sakrifikatu behar izan duzu?**

Azkenean, bizitzan zer nahi duzun erabakitzea da garrantzitsua. Baldin badakizu zer izan nahi duzun, zenbait gauza sakrifikatzea ez zaizu gehiegi kostatzen, baina ez baduzu garbi eta mila gauza egin nahi badituzu, orduan bai. Baina sakrifikatu, beti sakrifikatu behar da zerbait, sakrifikatu behar dira bestak, ezin duzu nahi duzuna jan, ongi lo egin behar duzu, baina gustura bazaude ez zaizu gehiegi kostatzen. Noski, beti izaten dira egun txarrak, baina hori adinarekin gainditzen da.

■ **Hamasei urterekin hasi zinen zu korrika egiten, eta krosean ibili zinen lehendabiziko. Zer erakutsi dizu krosak gero pistetan aritzeko?**

Krosean hasi nintzenean pistarena ez nuen ezagutu ere egiten. Baina hasi nintzenean gustatu zitzaidan, eta orain arte hor

ibili naiz. Pistan ibiltzeko, hala ere, laguntza handia izan da krosa. Krosean erresistentzia lortzen duzu, eta pistan abiadura. Baina biak beharrezkoak dira, biak menperatu behar dira ongi korrikalari ona izateko.

■ **Ia hamar urte daramazu atletismoaren munduan. Begirada atzera botaz gero, zer iruditzen zaizu orain arte egindako ibilbidea, pauso egokiak eman dituzula uste duzu?**

Ez dakit, igual sobera poliki ibili naiz, poliki-poliki joan eta ez dut gehiegi arriskatu. Banaka igo ditut eskailerako mailak. Badakit batzuk hironaka igo eta erori egiten direla, baina binaka igo daitzke. Horregatik uste dut nahiko mantso joan naizela. Soldadutzagatik, adibidez, urte bat edo bi galdu ditut ia, eta gero, adina dago ere bai, hemezortzi edo hemeretzi urterekin ez baitakizu zer nahi duzun, eta hor ibiltzen zara, utzi edo ez utzi ezin erabaki, gogorra dela pentsatuz. Baina, oro har, ongi egin dudala uste dut.

■ **Erran ohi duzu atleta nafarrak hagitx indibidualistak direla.**

soslaiá

Rafa Maritxalar hogeita bost urteko korrikalari lesakarra da. Orain, ordea, herria baino nahiago du hiria, eta Lesakara gutxitan joaten dela aitortu digu. Lanak eta entrenamenduek, gainera, ez diote nahi duena egiteko denbora askorik uzten.

Hamasei urte zituenen hasi zen korrika egiten Maritxalar. Krosean trebatu ondoren, pista aukeratu zuen gero, eta horretan dabil gaur egun. Beste Iruña taldean. Orain dela lau urte Iruñeko Fuerte del Principe Nafarroako Gobernuaren Gazteen Egoitzara ailegatu zen, eta han bizi da oraindik, bertze kirolari nafar gazte askorekin batera.

Lesakarra bada ere, Berako Lanbide Heziketako Institutuan egin zituen ikasketak Rafa Maritxalarrek. Korrikalari izan nahi zuela erabaki zuenetik ondoan izan du familia, eta aurrera segitzeko animatzen dute. Nafarroako Hiri Milia korritu ondoren, «indarrean» dagoela erran digu.

Horrek gogorrago bilakatzen du atletismoa?

Ez bakarrik nafarrak, atleta guztiak dira indibidualistak, kirol indibidualista da atletismoa. Detalleak ikusi izan ditut, igual, entrenamenduan denbora ona egin du batek eta beretzat gordetzen du. Nik hori ez dut inoiz ulertu, baina hain kirol indibidualista denez, halako gauzak egitera bultzatzen zaitu. Ez da futboleko bezala, talde bat dagoela. Atletismoan zaude zu eta deskuidatzen bazara ezin da aldatu futboleko bezala, jokalaria bat atera eta bertze bat sartu.

■ **Kompetentzia handia dago. Baina lasterketa hasi aurretik, nolakoa da zuen arteko harremana?**

Hasi aurretik harreman ona dago, elkar berotzen dugu, hitz egiten dugu. Baina lasterketa hasteko hogeita minutu falta direnean bakoitza berean kontzentratzen da. Eta karrera barruan, ondokoari ukondoa sartu behar badiozu, sartzen diozu. Agian, egoista da, baina txapelduna izateko egoista izan behar duzu. X

«Bi urteko epean marka onik lortzen ez badut, seguru asko utzi egingen dut atletismoa»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

